

El acuerdo del siglo XXI

XXI. mendeko
akordioa

L'accord du XXI siècle



euskarari



euskarari

Bai euskarari Akordioa

Bai Euskarari Akordioa

Sarrera

Euskara 2000. urtearen atarira heldu da. UNESCOren arabera, gaur egun munduan dauden lau mila hizkuntza baino gehiagotik, mila galduko dira datozen hogeitun urteetan. **Bai Euskarari Akordioa**n euskara hirugarren milurtean bizi eta gara dadin gure gizarteak duen erabaki sendoa islatu nahi dugu, izan ere gaur gaurkoz hori bermatu gabe baitago. Horregatik, hamarkada banaka batzuetan burura eraman nahi dugu gaurko erritmoan askozaz epe luzeagoa beharko lukeen eta agian inoiz burutuko ez litzatekeen prozesua.

Prozesu horren gakoa gizarteko estamentu guztiak bertan inplikatzear datza. Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak egindako gonbiteari erantzunez, Akordio honetan Euskal Herriko gizarte-eragile nagusiok euskararen normalizazio osora iristeko dugun prestutasuna jaso dugu, guztiak protagonista izango dituen eskuhartze-prozesu ireki batean, eta beharrezko izango diren neurri normalizatzaileak adosteko konpromiso argiarekin.

Bai Euskarari Akordioaren puntuak

Behean sinatzen dugun gizarte-eragileok:

1. **Euskarak garapen osoa lor dezan bere normalizazioa behin betiko bideratuko duen prozesu batean eskuhartzeko konpromisoa adierazten dugu.**
2. **Prozesu hori hizkuntz normalizaziorako Plan Estrategiko bat prestatuz eta ezarriz burutuko dugu.** Horren bitartez hizkuntzaren egoera sektorez sektore eta lurraldez lurralde aztertuko dugu, maila bakoitzean beharrezko neurri normalizatzaileak finkatuko ditugu, eta horien arabera, plana diseinatzen eskuhartuko dugun gizarte-eragileok konpromiso zehatz eta borondatezkoak hartu eta praktikan ezarriko ditugu.

Konpromisoak hartze hau gizarte-eragile bakoitzaren autonomia errespetatuz bideratuko da.

Plan Estrategikoaren oinarria Eusko Jaurlaritzak onartu berria duen Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia izango da Euskal Autonomia Erkidegoan. Era berean, Nafarroako Gobernuak euskara sustatzeko eratutako egitasmoekin eta Ipar Euskal Herrian, lehenbailehen, gauzatu behar den hizkuntza antolakuntzarako plangintzarekin koherentzia eta osagarritasunez bideratzeko konpromisoa adierazten dugu.

3. Akordio- eta konpromiso-dinamika honetan euskal gizarteak bere hizkuntza berreskuratzeko duen borondate garbia islatu nahi da. Erabaki hori gizartearen adierazgarri diren gizarte-eragileen eskuhartze zabala-
ren bitartez bideratu ahal izateko guztiei zabalik daude Bai Euskarari Akordioa eta ondoren burutuko den konpromiso-prozesua.

Hemen sinatzen dugun Bai Euskarari Akordio honek segurta dezala datarren menderako euskararen etorkizuna Euskal Herrian.

AKORDIOAREN SINATZAILEAK:

AGRUPACIÓN DE SOCIEDADES
LABORALES DE EUSKADI
(A.S.L.E),
Javier Martínez De Abando jauna
Lehendakariordea

ASOCIACIÓN NAVARRA DE
EMPRESAS LABORALES
(A.N.E.L.),
José Manuel Amigot Gracia jauna
Lehendakaria

ATHLETIC CLUB BILBAO,
José M^a Arrate Llosa jauna
Lehendakaria

AVIRON BAYONNAIS,
Jean Michel Barnetche jauna
Lehendakaria

CAJA LABORAL - EUSKADIKO KUTXA,
Juan José Arrieta Sudupe jauna
Zuzendari Nagusia

CLUB ATLÉTICO OSASUNA,
Javier Miranda Martínez jauna
Lehendakaria

CLUB DEPORTIVO ALAVÉS,
Francisco Javier Liberal Gastón jauna
Lehendakariordea

COMISIONES OBRERAS DE EUSKADI
EUSKADIKO LANGILE KOMISIOAK
(CC.OO.),

Santiago Bengoa Bengoa jauna

Idazkari Nagusia

CONFÉDÉRATION FRANÇAISE
DÉMOCRATIQUE DU TRAVAIL DU
PAYS BASQUE (C.F.D.T.),

Jean Baptiste Etxeto jauna

Idazkari Nagusia

DEUSTUKO UNIBERTSITATEA,

José María Abrego De Lacy jauna

Errektorea

IRUÑEKO GOTZAINGOA
EUSKAL PASTORALTZAREN SAILA,

Juan Apezetxea jauna

Eskualdeko Gotzain Bikaria

EUSKAL HERRIKO NEKAZARIEN ELKARTEA
(E.H.N.E.),

Maite Aristegi Larrañaga anderea

Lehendakaria

EUSKAL LABORARIEN BATASUNA
(E.L.B.),

Eric Dolosor jauna

Lehendakaria

EUSKAL LANGILEEN ALKARTASUNA
(E.L.A.),

Jose Elorrieta Aurrekoetxea jauna

Idazkari Nagusia

FEDERACIONES DE CENTROS
REGIONALES DE EUSKADI,

Juan José Baña Pérez jauna

Irmandade de Centros Galegos

Lehendakaria

HEMEN,

Jean Louis Harignordoquy jauna

Zuzendaria

HERRIKOA,

Jean Thicoipe jauna

Lehendakaria

LANGILE ABERTZALEEN BATZORDEAK

(L.A.B.),

Rafa Díez Usabiaga jauna

Idazkari Nagusia

MONDRAGÓN CORPORACIÓN COOPERATIVA,

Juan M^a Otaegui Murua jauna

Kongresuko Lehendakaria

MONDRAGÓN UNIBERTSITATEA,

Ignacio Lacunza Antón jauna

Mondragon Eskola Politeknikoa,

Zuzendari Nagusia

REAL SOCIEDAD DE FÚTBOL,

Luis Uranga Otaegi jauna

Lehendakaria

UNIVERSIDAD DE NAVARRA
ESCUELA DE INGENIEROS,

Carlos Bastero De Eleizalde jauna

Dekanoa

SUSTATZAILEA

EUSKARAREN GIZARTE ERAKUNDEEN
KONTSEILUA,

Paulo Agirre Ezeiza jauna

Lehendakaria

OHOREZKO LEKUKOA

UNESCO,

Félix Martí Ambel jauna

Linguapax Nazioarteko Batzordeko Lehendakaria

Bai Euskarari Akordioa garatzeko prozedura

Plan Estrategikoaren prestaketa

- Akordioaren sinaketaren ondoren Plan Estrategikoaren prestaketari ekingo zaio. Honetarako aholkularitza espezialduen laguntzaz baliatuko da.
- Akordioaren sinatzaile guztiek hartuko dute parte planaren diseinuan. Plan Estrategikoaren prestaketa lurralde bakoitzaren errealitate sozio-linguistikoari egokitu ahal izateko planaren diseinurako lantaldeak lurraldeka egituratuko dira.
- Planaren diseinuaren fasea gizarte-eragile guztien arteko Kongresu handi batekin amaituko da. Ondoren konpromisoen gauzatzeari ekingo zaio, horretarako behar den segimendu mekanismoa ere antolatuz.

Akordioaren jarraipena

- Bai Euskarari Akordioaren bultzatzaileek Jarraipen Batzorde bat osatu dute prozesua zehazteko ardura izan dezan.
- Kontseiluak izango du Akordioaren garapenean eta planaren diseinugaraian prozesu honen dinamizazio- eta koordinazio-ardura.